

Malen Amenabarrek eskuratu du Peru Abarka ilustrazio lehiaketaren lehendabiziko saria

Garaikur hau irabazita bigarren aldia du aitortza hori jasotzen duela

UNAI SARRIUGARTE Martes, 11 agosto 2020, 21:55



Larrabetzuko artista marrazkilaritzaren hainbat esparrutan ibili izan da egun arte lanean: ilustrazioan, kartelgintzan eta animazioan / bertsoa.eus

Malen Amenabarrek eskuratu du Peru Abarka ilustrazio lehiaketaren lehendabiziko saria. Hala, Yolanda Larreateguiren testuaren marrazkiak aurkeztu ditu. Sari hau irabazita bigarren aldia du aitortza hori jasotzen duela, 2018. urtean lehendabiziko aldiz bereganatu baitzuen Amenabarrek garaikurra.

Amenabarrek irailaren 1a arte du istoriako ilustrazio guztiak jorratzeko.

Izan ere, urriaren **24an argitaratuko dute Larreategiaren testuak Amenabarren marrazkiekin** uztartzen dituen lana.

Aurtengo edizioan orotara ilustrazioaren alorrean 14 hautagaitza aurkeztu dira. Autoreen gehiengoa Euskal Herrikoak izan dira, bana kanpokoak diren baten bat ere ageri da.

Lan irabazlea aukeratu duen epaimahaiak nabarmendu duenez, testua ardatz hartuta, **ilustratzailea letrez hurrunago abiatu da, barneratutako istorio horri** ate berriak bermatuz, alegia. Marrazkiek hegaztiei eta zeruari egiten diete erreferentzia, hala nola, txoriei, kaiolei, hegoei edota lainoei. Hitz gutxitan 'Kaiola' ilustrazioen izenburuak hori dena barnebiltzen du.

Arte Ederretan lizentziaduna da Malen Amenabar Larrañaga bizkaitarra. Larrabetzuko artista marrazkilaritzaren hainbat esparrutan ibili izan da egun arte lanean: ilustrazioan, kartelgintzan eta animazioan, besteak beste. Era berean, bakarkako lan ezberdinez gain, sormen kolektiboa sustatzen duten zenbait taldetan ere murgilduta dago, Txakur Gorria kolektiboan, esaterako, talde horren kidea baita. Gainera, arte plastikoaz gain, beste sormen diziplina batzuk ere lantzen ditu, bertsolaritza, esaterako.